



Ez zait Meet-a kargatzen. Loreak marrazten hasi naiz koadernoan, bien bitartean. Erosi beharrekoen zerrenda, aldaketen inguruko poema bat eta lore sorta bat, atzo erositako koaderno horian. Nahiko *aesthetic*. “Klisk”, instagramera. Nakar: “Hondakinen artean bizi”. Compartir.

Bilera batean sartu naute. Ez dakit nor den jende hau. Zutabeez ari dira. Kargaz.

Koaderno ireki eta esan didate neu naizela bilerako lehen puntua. Pantailaz bestalde sentitu ditut hamar begi niri begira: “Tia, zer diozu? Bai?”

Inori esatekorik ez nuela uste nuen orain arte. Baina ohartu naiz ez dela halakorik behar orri zuri batean deskarga nadin; orri zuriak karga nazan.

Ez nator mundurik konpontzera; baina, kuku! Banator.

*June Aiestaran Iparragirre*



## **Ale honetan aurkitu ahal izango duzuna:**

Bi eskutara idatzitako testuak, kontakizunak,  
metaforarik gabe idatzitakoak, eta, noski, deskarga.



## METAL KUTXETAN

metal kutxetan  
zamatuta dihoaz  
orden onean

burdin zapore  
odolaren antzera  
mikatz ahoan

isuritakoa  
baita hildakoaren  
jabea nor den

*Hobeto esanda:*

metalezko kutxa erraldoietan sartuta  
kar-ga-tu-ta  
burdin zaporea odolaren berdina denez  
or-dain-ez  
ezin desberdindu daiteke isuritakoak  
hil-da-ko-ak  
jaberik ba al duen




*Hobeto esanda:*

metalezko kutxa erraldoietan ordenatuta doaz ()k sartuta, kargatuta, eta burdinaren zaporea odol gorriaren zapoaren berdina denez, horren ordainez, askok, hobe esanda ()k ezin dute desberdindu isuritako horrek, eta, noski, hildakoek, jaberik ba al duten, ()k edo () diren.

*Hobeto esanda:*

Metalezko kontainer erraldoi eta pisutsuetan, orden bati jarraituz, ondo sartuta bidaltzen ditugu armak, kargatuta. Metal gehientsuenek bezala arma horiek ere odol zaporea badute; ordainez, isuritako odolaren eta hildakoen jabe nortzuk diren galdetzen diogu geure buruari. Baina badakigu nortzuk sortu, bidali, heldu eta kargatzen dituzten armak, agian errazagoa da ez ikustea, baina armek ezin dituzte euren buruak sortu, bidali, heldu, kargatu, hori metafora bat litzateke eta.

*Irati Fdz. de Okariz Irureta*



## DENA ALDATZEN DEN EGUNEAN

Dena aldatzen den egunean  
zein egun izango da?  
Astelehena? Osteguna? Igandea?  
Laneguna? Jaia? Black Friday? Pink Friday?  
Abenduak 32? Apirilak -1? Otsailak 30?

Dena aldatzen den egunean  
zer gosalduko dut?  
ColaCao? Nesquik?  
Esne gaingabetua? Erdigaingabetua? Osoa?  
Plátano de Canarias? Naranja de Valencia?

Dena aldatzen den egunean  
zer jantziko dut?  
Zara? Stradi? Shein?  
Quechua? Ternua? Versace?  
Gorria? Beltza? Zuria?  
S? XS? L? XL? M? MS?  
Adidas?



Dena aldatzen den egunean  
zer edango dut?  
Kas? Fanta? Pepsi?  
Coca-Cola normal? Coca-Cola zero?  
Estrella? Mahou? Alhambra?

Alhambra 1925?

Dena aldatzen den egunean  
nor egongo da?

Zu? Ni? Gu? Bera? Haiek? Zuek?

Nor egongo da zutik?

Nor eserita? Nor etzanda?

Nor zigarro bat erretzen?

Dena aldatzen den egunean  
zerutik begira dauzkagun martzianoei  
bihotzekoak emango die.

Eta guk, guk zeri idatziko diogu orduan?

*Maddi Agirre Epelde*





## BESTE BAT

*Banku bat erdigunean, alboan farola bat argi horiaz. Bi pertsona nagusi isilik, zorura begira. Fondoa grisa da, gaua dirudi. Ezin daiteke asma zinez barrukalde batean ala kanpoaldean dauden, ez dago besterik inguruan. Bankuaren albo batean maleta bat, txikia.*

MIREN EDURNE: Nik ere ez dinat zuk joaterik nahi, hik bazakin.

GOTZONE: Eztun hori kontua, bazakinat, baino eztun beste aukerarik.

ME: Egon behar din... Ez kontrakorik esan, andra!

G: Eztun hau zena, ez gaitun ginenak.

ME: Alargundu hintzenetik, ezin haut jasan. Eguna ematen dun goibel, hits, mutu. Nik ere behar haut, eh! Ez din erraza, inorentzat ez.

G: Eztun hau zena, ez gaitun ginenak.

ME: Nik ere galdu ditinat gauza asko, eta galdu haut, antza.

G (Negarrez): Baina nik etxea galdu dinat.

ME (Hasperen): Eztun posible, eztun bidezko.

G: Eztinagu hemen genuena, eztinagu ezer.

ME: Topatzen badinat etxejabea, bereak egin din!





G: Ez haiz gai inor ere mehatxatzeko, ez egin plantak.

ME: Hamaika bider esango zionat ere, beharrezkoa badin.

G: Kafea nahi al duzu?

ME: Kafea ere ez tin zena.

G: Zena eztun.

ME: Zer ezta?

G: Zena, eztun existitzen. Ezer ere ez.

ME: Gu gaitun.

G: Baina ez ginenak.

ME: Laster izan ere, ez gaitun izango. Ez hemen.

G: Hemen eztun ezer zena, hau eztuk zena.

ME: Hire etxea eztun izango etxe, hi ez bahago.

G: Eztun etxe izango, a sekas.

ME: Etzagon etxerik hemen, a sekas.

G: Euskeraz etzagon casa eta hogar arteko ezberdintasunik, kastellanoz bai, ordea.

ME: Beti izan gaitun euskaldunok zera... praktikoak.

G: Baina orain ez zaukanat etxerik. Ez etxerik1, ezta etxerik2 ere.

ME: Alabarekin biziko haiz.

G: Baino urrun egongo naun.

ME: Neurri batean edo bestean, beti egon gaitun urrun.

G: Baina jada ez gaitun ginenak.

ME: Alargundu hintzenetik, hurbil izan haut.

G: Jada ez garelako ginenak, antza.  
ME: Beti izan gaitun aldrebesak.  
G: Baina jada ez gaitun ginenak.  
ME: Utzi berdina hamaika bider errepikatzeari, otoi.  
G: Ezin dinat besterik pentsa, jada ezer ez dela existitzen.  
ME: Egia dun, ezin kontrakorik pentsa. Dena aldatu dun azken urteotan, adioak besterik ez ditinat esan. Ahoa bete adio, beste bat.  
G: Geratzen zaigun bakarra dun, zera, izan zena. Oraingoz bederen, hori bazaukanagu.  
ME: Eztun gutxi.  
G: Jada existitzen ez den hirian.  
ME: Kartoi harrizkoa dun.  
G: Itsusia, hitsa, sitsa. Zitala, kasik.  
ME: Kartoi harrizkoa, sikiera kartoizkoa ala harrizkoa balitz.  
G: Baina hau ere eztun zena. Galdu din xarma, galdu din nortasuna. Tristea dun nortasuna galtzea, benetan. Zitala, kasik.  
ME: Guk galdu al dugu?  
G: Ez zakinat, baina gu ez gaitun ginenak.  
ME: Nortasuna subjektu gabe zera da, -tasuna.  
G: Hiri hau -tasuna dun, subjektu gabekoa.  
ME: Itsusia, hitsa, sitsa.  
G: Zitala, kasik.  
ME: Absolutiboa.




G: Jendea kalean eztun zena, hori sikiera.  
ME: Ezin daiteken ezer uler, hori argi zagon.  
G: Esaldiak ez ditun zirenak, hitzak.  
ME: Hitsak, -tasunak.  
G: Itsasoa eztun zena, kolorea ere joan zaion.  
ME: Bai, bai, eta trena ere eztun zena, baino jarraitzen dun orduan etorri gabe. Berandu zatorren, baino hemen zagon. Mugi.  
G: Banoan.  
ME: Bahoia.  
(Gotzonek maleta hartu eta mukizapia eskuan joan egin da)  
ME (Lur jota eta telefonoz): Luis, etorriko zara amaren bila geltorika? Bixkor, lehertuta nagok.

*Harri Diaz de Heredia Matanzas*



## GAUR BAI

Orduan,  
izaretan bildu  
eta hasiko zara negarrez,  
baina ez duzu jakingo zergatik.  
Sentituko dituzu taupadak  
sabelean,  
saihetsetan;  
buelta erdia eman  
eta sentituko dituzu  
lepoan,  
kopetan.



Orduan,  
mesanotxeko koadernoan  
idatziko duzu  
ez dakizula zer egin behar den  
korapiloa  
barrurago sentitzen duzunean;  
barrurago,  
eztarritik,  
ez dakizu ongi norago.  
Oihu egingo diozu burkoari,  
baina ez zaizu ahotsik aterako.



Esnatuko zara,  
eta ikusiko dituzu ispiluan  
hazitako bi begi,  
orbain gehiegi.  
Jarriko diezu izotz puska bana,  
eta emango rimela betileei.  
Jantziko dituzu  
leopardozko top-a  
eta txupa gorria.  
Aterako zara etxetik,  
baina ez duzu aterik giltzaz itxiko.  
Igogailuko ispiluari begiratu  
eta ezagutuko duzu  
egun horretan izango zarena.  
Ohartuko zara baietz,  
gaur oso guapa zaudela;  
eta bidaliko diezu argazki bana  
zure hiru ligueei;  
beste bat amatxori,  
eman diezaion oniritzia outfitari.

Igogailutik atera eta begiratuko diozu  
portaleko ispiluari ere.  
Irrifartxo bat aterako zaizu,  
indartsua,  
ahaldundua,  
esango zenuke.



Moñoa askatuko duzu.

Orduan,

Notas-en idatziko duzu  
ez diozula inori ezer zor.

Ez diozula inori ezer zor,  
zeure buruari baino.

“Poematarako ideiak” karpetara  
eramango duzu.

Eta mendazko txikle bat sartuko duzu ahoan.

*June Aiestaran Iparragirre*



## BIZKARREZURRA

Hiriko kaleak geroz eta zabalagoak zaizkit. Punta batetik bestera lauzpabost oinezko, bi noranzkodun errepidea eta autoak aparkatzeko tartea, eta hainbeste lekurekin haizeak inoiz baino toki handiagoa dauka ibiltzeko. Erraz konturatu daiteke bat azken datu horretaz, ilea bost zurrunbilo ezberdinetan korapilatu zait. Ez noa korrika, ez naizelako gai bi etxebizitza-bloke segidan egiteko, baina arin noa, arnasa falta zait inkluso.

Lehen aldiz egiten ari naizen bidea da hau, nahiz eta badirudien beti jakin izan dudala norantz joan behar den. Aspalditik nenbilen zita eskatzeko beharrarekin, baina betiko kontuekin, ezin telefonoa hartu eta deitu. Badakizue, gure belaunaldikoon ezaugarri berezia omen da telefonoz hitz egiteko ezintasun hori; telefonoaz bestalde dagoen horri geure bizitzako faborea eskatzen ariko bagina bezala.

Lanetik irten ondoren hartu behar izan dut zita, goizean uniko klaseak eta arratsaldean umeen atzetik korrika: Zazpitan, orduan, ezta? Eguneko azken zita da ezin dizut beraduagorago eman! Beno, ados bai (korrika irten beharko naiz lanetik

berandu ez iristeko, hori bai lotsa). Zeure izena? Irati. Ados, ba gero arte! Bai, ondo izan (ondo izan? iñdi iziñ).

Atera iritsi naiz arnasestuka, sorbalda batetik zintzilik dudan totebaga kentzeko irrikitan. Bai, pasa, zure zain dago!


Gela zuri-zuria, zirujaua ospitaleko amantala eta latexezko eskularruak soinean, bisturiarekin bizkarra albo batetik ireki, hezur guztiak banan banan atera eta orratzarekin berriz ixteko zain. Lobotomia bat bizkarrean.

Keba, ez naiz horrelako thriller bat idazteko gai oraindik.

Bada adin bat bizkarreko minak hasi eta nondik datozen ere jakiten ez duzuna. Titi hazi berriak, edo, institutuko mahaian postura txarra mantentzea izango da akaso arrazoa. Baina mina duzu: mina bizkarreko behekaldean, mina sorbaldetan, min-ziztadak saihets aldean. Gehiegi ere exageratu gabe, bizitza normala egitea erraza da, baina ohean etzatearekin besterik ez duzu amesten. Udalekutako egun zoragarri horietan ez dago







lurrean bizkarra paretan ipini gabe luze eseritzea baino ametsgaiztoagorik.

Batzuetan nahiko nuke azalaren azpitik sartutako estruktura batek jasan zezan neure gorputzaren pisua; exoeskeleto esaten zitzaion horri, ez? Eskeleto bakarrarekin nahikoa ez eta bigarren batek heltzea nahiko nuke. Bestela boxeora apuntatuko naiz, pare bat kolpek jarriko didate bizkarrezurra bere tokian; eta listo, arazo bat gutxiago.

Fisioak majo itxura dauka, kamiseta kentzeko eta kamillan buruz behera etzateko eskatu dit. Ea zergatik etorri naizen, gainontzekoak etortzen diren berdinatik, bizkarreko min kronikoak. Hotz ditu eskuak, baina badakite haien bidea egiten. Beste baten eskuak zeure bizkarrean, estutuz, baina ez gehiegi, laztanduz, baina ez gehiegi. Hor, hor, hor.

Ordubetez eduki nau etzanda, min eta tentsio askatze artean, neure bizkarra ezinhobe ulertzen duten eskuek tratamendua eginez. Negar egin dut saihetsetatik eta berak malkoak behatz indartsuekin xukatu. Maizago etorri beharko zenuke. Bai, badakit.

Lagunekin kafea hartu ostean itzuli naiz etxera.  
Bizkarreko min bat gutxiago.

*Irati Fernandez de Okariz Irureta*



## ENEGARRENEZ



Ni?

Ni, Gasteiztarra

Zergatik diozu?

Bai, bai noski, txikitatik

Eskolan, baina baita etxean ere

Bai, biek dakite

Ez ez, eurek ere ikasi egin zuten

Bata Gasteiztarra eta bestea Santurtziarra

Ez, aitona amonak ere Arabarrak, Bizkaitarrak  
jatorriz Kantabriakoak ere

Donostian ikasten dut, baina ez du zerikusirik

Ez dut familiarik Azkoitian,  
ezta Lekeition ere

Zergatik? Ni enau harritzen



Batzuetan *dot* edo *izanen* esan dut  
nahigabe, lasai

Nahi bai, nahiko nuke *bertze* edo *mailuki* esan  
baina ez *dinot*

Hemendik aurrerago traketsago arituko naiz  
sinets nazazuen

*Harri Diaz de Heredia Matanzas*





## EZAGUTU BERRI DIRA

Zure gurasoak instituzio bat dira. Zure gurasoa. Ume oso zahar bat ia erroldarik gabekoa.

Zarautzen igo da bikotea. Neska eta mutila, hizketan ari dira igo direnetik. Aurrera begira. Galdera erantzun laburra. Adin berekoak dira. Bere urtea entzun du, bai, jaiotzearen froga bat. Oso zaharra. Oso gaztea. Geltokian ezagutu omen dira. Begirada galdua, nora zoaz?

Tabakalerara, Tabakalera, tren estazioa, hor omen dago tren bat. Ni horra noa. Tabakalera. Berrir erantzuten du berak ere argi ez daukalakoan. Baina beste tren batean doa, Donostiako beste bazterrera. Tunelez tunel, bustia lehorra, beltz-beltza. Deituko anbulategira? Ez dago koberturarik. Ez du mugikorrik. Ez diote hartuko.


Hotza bustiko naiz. Ei, baduzu zerbait niretzat? Galdetuko diogu maleta daraman neska horri. Luze darama behar ez duen zerbaiten bila. Ez du osorik zabaldu, lotsatuta dago ezer aurkitu ezinean. Malla hauek onak dira? Jarri ditu are finago batzuen gainean. Eta baduzu txamarra bat niretzat? Zure izena, eskerrik asko.

Tren batean goiz osoa eta ez narama etxera. Eta ikasten duzu, lan? Adoptatua naiz. Isiltasuna. Ez dago lanik hau irakasten duenik. Zenbat falta da. Gutxi. Oso luze doa horrela bizitzea. Txanponak. Hau bidaia batentzako. Orduan Tabakalerara. Bai. Tabakalera.

Jaitsi dira: aurpegi ilun bat, aurpegi argi bat. Lagunduko zaitut. Bale. Ezagutu berri dira. Zurekin egon nahi dut. Ezin dut. Bale. Eta badoa.

*Irati Oskoz*





- Zer da politikoki zuzena?
- Bi puntu lotzen dituen bektoreak definituriko dimentsio bakarreko sistema sortzailea, politikoa dena.
- Zer da gizartea?
- Masa puntual batekin sinplifikatu daitekeena, gorputz erreal baten idealizaziorik handiena.
- Eta gizarte kapitalista?
- Anplifikadore operazionala, irabazi handiko gailu aktibo eta lineala, nahi dugun trasferentzia-funtzioa emateko diseinatua.
- Zer da krisi bat?
- Aberastasunaren berparametrizazio naturala, Giniren kontzentrazio indizearen arabera sakabatua.
- Zer da etxegabetze bat?
- Kanpo indarren baturaren emaitza ezinbesteko bat. Marruskadurak indar normalaren eraginez berdindu ezin duena  $90^\circ$ -ko plano inklinatu batean.
- Zer da emigrazioa?
- Espazio topologiko batetik beste baterako homeomorfismo ez konexua.
- Zer da autoritatea?
- Newtonen hiru legeak.
- (...)

- (...)
- Ez dizut ezer ulertu.
- Nik ere ez.

*Irati Larrañaga eta Maddi Agirre*





## PRINTZESEN IPUINAK

Nire laguna zen  
eraztun bat galdu dut  
zerrenda bat egiten ari nintzela  
printzesa-etxeak  
izendatzen dituen  
egoitzan.



Desamodio poema bat  
nire eraztuna daraman  
lagunarentzat,



laguntasuna

maitasuna

biei harremana  
deitzen diegun erreinuan.



*Irati Oskoz*



Hamabiak aldera igaro dugu zubia, Trianatik bueltan. Guadalquivir ibaiak mantso egiten die bultza haren gainean irristaka doazen piragustei: bikoteka batzuk, bakarrik besteak. Haize epel batek laztantzen dit aurpegiko azal lakartua, eta nik ikusten ez dudan arren, badakit eguzkiak dizdizka dantzan jarri dituela atzo erosi zenizkidan belarritako urreztatuak. Ibai ertzean, ijito bat kantuan.

*Ya encontré la que será mi futura esposa...*

Zu ondoan zaitut. Zehazki bereizten ez dudan ibaiaren beste aldeko punturen batean finkatu duzu begirada, eta aurrera zoaz, hau guztia zure kontua ez balitz lez. Eten. Eten dadila denbora. Eten Guadalquivirra eta bere gaineko piragustak: bikoteka batzuk, bakarrik besteak.

Eten dadila denbora amaitu baino lehen.

*La madre de mi' tres hijo' sevillana, guapa y hermosa...*

Begiratzen didazun apurretan begiratzeko duzun moduagatik badakit erabakia hartu duzula jada. Atzo, Bodega Santa Cruz-eko terrazan ardo kopa eskuan harturik etorri zitzaizun ultimatuma. Argi eta





garbi ikusi nuen, asteetan zehar zure zalantza guztiak ikusi ditudan moduan. Ikusi ahala ahaztu, edo saiatu behintzat. Afalostean, pentsiora itzuli eta larrua jo genuen, bakoitza ohearen ertz batean esnatu garen arte.



*Y al bailar parece que vuela su' pie' son de oro puro...*

Badakizu, baina ez didazu ezer esango hemendik hiru astera arte. Hemengo laranja usainetik urrun egongo gara ordurako, eta esango didazu ez naizela zehazki nahi duzuna, zehazki zer nahi duzun ez dakizun arren. Nik harritu plantak egingo ditut eta negarrez hasiko naiz. *Zer gertatu da? Ez al geunden ondo?* Asko maite nauzula diozun erraztasun berdinarekin esango didazu gure artekoa amaitu dela, eta nik apur bat gorrotatuko zaitut arrastaka eramanez nauzulako iritsi nahi ez nuen leku batera. Apur bat gorrotatuko zaitut zure ondoan higatu den gorputz hau ez dudalako ezagutzen, zure eskuaren neurria moldatu nauzulako, buztin puska bat bezala. Baina gorrotatu? Apur bat bakarrik.

Hondarra dut ahoan, harriak begietan, urrea belarrietan. Eta dekadentziaren karga bizkarrean.

Amak zure inguruan galdetuko dit gerora, eta nik ez dut jakingo nola erantzun. Driveko karpeta batean gordeko ditut gure argazki guztiak, lagunei ezabatu ditudala esango diedan arren. Irribarre egingo dut negargura dudan bakoitzean eta mundu guztiak jakingo du hemen ez dela ezer gertatu. Hemen dena ondo.

Baina mutu zaude oraingoz.

Haizea baretu da eta piraguistak urrundu. Jakin-minez behatu ditut ibai ertzean lasai dauden lagun talde eta familiak. Neska txiki batek irri egin dit eta nik ezker begia kliskatu diot. Goazen Torre del Oro aldera. Goazen. Eta aurrera noa, gorputz ezezagun hau berriz ere maitatzen ikasiko dudan ziurtasunarekin.

*Cásate conmigo, flamenca, que amor eterno yo a ti te juro*

*Maddi Agirre Epelde*





## LAU DIGITU

Zapatak kendu eta igo naiz.

Inoiz beldurrik eman ez didan sentsore simple bat. Beldurrik eman ez didaten LED argi batzuk. Digtu simple batzuk. Arnasa ez hartzeak lagunduko balu bezala, gramo bakar bat gehiago erakutsi ez dezan. Zuzen goteledun ormari begira, behera begiratu ezean ezer esango ez duelakoan.

Lau digitu: 50,64 kg

Gorputza erlaxatu zait. Arnasa hartu dut berriz. Ez nau agerian utzi.

Itzuli naiz mahaiaren beste aldera. Eta hasi da hilabeteroko plana. Bost egunetarako plana. Gosari, bazkari eta afari aukerak. Eta betiko galderak, ilarrak gustatzen zaizkizu? eta erremolatxa? Aurrean dudanaren eskuekin hipnotizatu imnotizatu naiz, mekanografiaren soinuarekin. Konturatu orduko proiektatu dizkit aukerak, konbinazioak, dietak. Hurrengo zita hilabete barru jarri eta irten naiz kontsulta hartatik.

Lau orri grapatuak eskuan, kaskoak jarri eta...

“ezin dut kulpa jasan”

(...)

“nola sentituko dut nire gorputza jada ez bada nirea”

(...)

Baina duela hamabost minutu, “¿qué tal estas?” galdetzean, “mejor” hitza besterik ez zait atera. Azken hilabeteen hobeto egon naizela, eta broteren bat izan badut azterketei bota diet errua. Ez da liburutegiko eguneroko deskantsotan hartutako kafe eta tortila bakoitzaren errua. Ostiraletan entsaioa eta gero jan ditudan lau gazta portzioak ere ez zaizkit garrantzitsuak iruditu. Insomnioaz galdetzean, infusioaren erremedioak frutuak eman dituela esatea besterik ez zait okurritu. Behin probatu nuen, eta efektu plazeboa izan zitekeen baina funtzionatu zuen, edo. Ez dakit bera konbentzitu nahi nuen; edo ni. Ez dut lortu.

Arrazoia argi ez dagoenean zaila da jakitea: zer komeni eta zer nahi. Zientziak erantzunik ez daukanean, non dago egiaren zama?

Baskulak lau digituko egia esan du. Neurketa hutsal bat egin du, zehaztasun zalantzarriarekin; karga bakarra neurtu du.

*Irati Larrañaga Etxebarria*



## KARGA BATEN KRONIKA

*« J-1 a Charlie. Charlie, a ver si necesitas ahí a J-2. Envíalo para aquí para que cubra la espalda de la iglesia. »*

Abisua entzun eta martxan hasteko unea. Beste behin iskanbila eta beste behin lasaitu beharra, batek-daki-zer demontre dela-eta zarata egiteko nahia. Arreta falta, argi dago. Benetako arazoak faltan eta inori axola ez zaizkion kontuetan txapa sartzeko beharra, hori bai dela kapritxo ederra. Gure garaian bizi izan balira... Haize gehiegi da gazte kexati horiek dutena, ez du beste izenik. Etxebizitza edo Palestina, egunero kontu bat edo beste. Ezin jakin gaurkoan zer umorez topatuko ditugun. Lasai dagoena molestatzeko beharra, ez du beste izenik; ongi dakite, gainera, nola bukatuko den gaurkoa ere. Ez ditut bi oihu baino gehiago behar izter ondora eskua eraman eta nirean has nadin. Haiek ikusiko dute. Nik lasai asko egingo dut lo gaur ere.

*« ...Entonces lo que te interesa es que los cojan por detrás. Exacto. »*

Beldurrik ez baleukate bezala ari dira oihuka, mehatxuka. Barre txiki bat egin diet, esanez bezala



“aski dut besoa luzatzea denok isil zaitezten, zuek ikusi”. Oihuka jarraitu dute. Ondoko kideari begiratu eta lau pauso egin ditugu aurrera. Ez dira paretik kendu. Gogor has gaitezen nahi duzue, beraz. Ongi da. Has gaitezen.

Borra daukat esku batean; babesgarria bestean. Niretik banatzen hasi naiz; espabilatzeko premia latza baitute gazte mimatu eta kexati hauek. Ez dira nekatzen. Izterrean eman diot bati; bizkarrean besteari. Bultza egin dit batek; txistu besteak. Banatzen baino, gogor ematen hasi beharko dugulakoan nago. Ze ondo. Hastera doa dibertigarriena.

*« Mándenos refuerzos, si no, no hacemos nada; si no, nos marchamos de aquí; si no, vamos a tener que emplear las armas de fuego. [...] ¡Vamos a tener que emplear las armas! Cambio. Gasead la iglesia. [...] Vamos a utilizar las armas seguro, además ¿eh?»*

Begirada bat. Alboko kidearen irribarrea, konplizea. Baietz, esan didate. Prestatzeko. Prest nago. Prest jaio nintzen ni, nola ez. Aske eta prest jaio nintzen ni. Askatasuna gerrikoan. Askatasuna borran, botan... Oraingoan ez dut inolako alibirik beharko. Entzun al duzu zer esan dizun? Hori esan dizu eh, hark.



Kamiseta berdeko hark. Joder. Basati hutsak dira,  
eh. Ostia, botila bat. Basatiak, besterik ez.  
Txoriburuak, besterik ez. Gaur luze egingo dut lo,  
kirolak nekatzen laguntzen du.

Baietz, baietz entzun dut.

Joateko.

Ez dut inolako alibirik behar.

Kaskoa ipini, babeskia hartu eta eskopeta kargatu.  
Bakea zabaltzera noa.

*Harri Diaz de Heredia eta June Aiestaran*



**1+1**

museoan tiket bat erosi  
behin artista batek pintatu zuen  
horren aurrean eseri  
eta zain egon,  
minutu bat/minutu bi.



jatetxean mahai buelta osoan  
plater bana jarri dutela ikusi,  
mahai borobila den heinean  
hizketagaia zurrumbilo bihurtu.

sakelean arkatz, ezpainetakoa,  
laban suitzarra, partekatzeko txikleak,  
dena hustu, banatu, berriz betetzeko,  
alde bakoitzean zerbait.

etxerako buelta guztiak  
aldebakar-hausnarketa-pasira-bola bihurtu  
bi hanka zoru bat helmugan batzuk.

erantzungailuarekin hitz egiteko deia,  
ardo kopa bat eskatu  
telefonoa itzali  
eta kopa poltsoan gorde.

monologo bilakatu elkarrizketa,  
inoiz elkarrizketa izan ez bazen ere.

tangoak binaka dantzatzeko direla konturatu

kontzertuetara hirukotean  
goazela kontuan eduki,  
oraingoz gutxienez.

bizikletaren atzeko gurpila konpondu zuena  
kotxean joan dela eskapo.

sukaldean pertsona bakarrarentzako tokia,  
mahai oso batentzako jakia,  
intolerantziak buruan.


gauean betiere paretak lau direla,  
eta zu bakarra,  
ohe bat.

honek eluke binakakotasunaren  
aldarri izan nahi,



batzuetan autobuseko alde banatan  
eserlekuak bikoteka besterik ez daudela  
gogoratzen dut.

*Irati Fdz. de Okariz Irureta*



## ZIRKULU BAT



Berandu nabil betikolez. Berrogei aldiz bide berdina egin arren inoiz ez naiz garaiz heltzeko gai, edo nahi. Arnasestuka azken aldapa igo dut, atea itxiko ez zutenaren esperoan. Ez daukat tinbrea jotzeko gogorik. Indarrarekin bultzatu ostean lasaitasuna sentitu dut ireki denean. Isilpean eman nahi izan ditut pausuak, baina soinean ditudan Martens-en pisuak ez didate hori egiten utzi. Eta bigarren atea zabaldu orduko hamar begi pare ikusi ditut joka.

Borobila edo zirkulu ertziduna akaso, horretan sartzeko aulki bat hartu eta mahai ertzeratu gerturatu naiz. Xuxurlan galdetu nahi izan diot Maddiri “zertaz zabilzate”, eta beste ertzetik “oraindik ez gara hasi, zure zain geunden” batek hotzikaratu nau. Tote bag-a ahalik eta azkarren ireki, koaderno, agenda eta estutxea atera ditut segundu bat gehiago galtzeko beldurrez.

Boligrafoari tapoia kendu baino lehen, hasi dira azalpenekin. Apunteak hartzearen antzera, dena idatzi nahian baina ezer guztiz idatzi gabe, ustez entzundako asko, galdetzeko ausardia ez dut poltsatik atera. Isiltasuna entzutean konturatu naiz azkenengoa ez dela afirmazio bat izan. Eta

begiraden jokoa hasi da. Gorleku izendatua dut jadanik: Mahaia. Aukera seguruena izan ohi da, ez baitaukate begirik, edo ez behintzat zuzen begiratzekorik.

Mugitzeko saiakera egin baina ez da soinurik atera. Ez dauzkat gauzak argi, edo ez esateko beste. Egi erdi bat esateak ez du merezi, esaldia “bueno ez dakit” batekin amaitzen duzunean, badaezpada. Iritzi bat gaizki egoteko aukera balego bezala. Uneoro ebaluatua sentitzen naiz, erratzeko aukerarik gabe. Orduan txikitu egiten naiz, ezkutatu. Ihes egiteko gogoia sartzen zait, eta horretarako aukerarik ez dagoenez, isiltasuna bihurtzen da nire kaskoa, armadura, ezpata eta ezkutu. Inoiz heltzen ez den harrikada batetatik babestu ahal izateko. Barruan baitago eztanda egin dezakeen bakarra.

Burbuila desagertu egin da.

“Zuk zer uste duzu, Irti?”

“Egia esan, ez dakit”

Gaur ez da ezandarik izan.



*Irti Larrañaga Etxebarria*

## FREE WILL: IRAULTZARAKO BAIMENA

Bai, bueno, hautuen zerrendan hau esan nuen.  
Atzera bueltarik balego zerbait aldatuko nukeen,  
kontu zaila da orain esateko.

Pentsatzen nuenean  
etorkizun batean

ni berdina

berdina pentsatzen  
berdina egiten  
izango nintzela



iraultza egiteko baimena eskatu nuen.

*Free will* deitzen diote batzuek  
-berez edozer egin dezakezu-

ba horra hor nire

nahi librea  
ahal librea  
gogo librea

momentu batez  
(uzten badidazue)  
ez dut determinismoetan sinestuko.

Hasi nintzen paperak betetzen  
nire etxetik  
munduko beste ertzera  
hari bat lotzeko  
ea asmatzen nuen  
zein zen nire bezalakoan aldea  
eta zein beste klase batenarena

izan ere  
bakarrak du lekua  
mundu honetan.

Ez dago horretarako baimenik  
horretarako hobe jo beste bulego honetara  
bete formularioa hau  
zure NANA  
errepikatu, mesedez.

Pausu guztiak saltatu dituzu.  
Nik baimena ematen diot neure buruari.  
Pausu guztiak saltatu dituzu.





Jakinaren gainean egon beharko zenuke  
egin daitekeena eta ezin daitekeena  
inoiz egiteari utzi ez zaiona  
ezin dela beste batean saiatu.

Identifikatuko naute  
nire izenean ez badoa?  
Lizentzia poetiko batekin  
ez al da nahikoa?

Nire hitzak ez baditut zehazten  
ez duzu jakingo nor naizen  
edonork esan dezake

- aske
- bestelako etorkizun bat
- zapalkuntzarik gabeko
- alternatiba

eta abesti hutsal batek ere  
diskurtso politiko eman dezake.

Autorizatua bada  
kontrolatua  
dagoeneko noiz hasi eta bukatzen den  
zehaztua  
ezin du beste modu batera izan


esan genizun  
xehetu zenezan  
gertatuko zen guztia.

Zalantza sortzen zait  
eskatu ez banu  
gertatzeko eskubidea edukiko nukeen

dudarekin gelditzen naiz

ez ote den gertatzen  
eta gero erabakitzen  
egin daitekeen edo ez.

*Irati Oskoz*



## PROZESIOAN

*ez dut maitatzen, ez dut larrurik jotzen  
emakume batek bezala  
Juana Dolores*

Tum. Tum. Tum.

Prozesioan doaz kale estuetatik.

Ikaratu dute hiria.

Tum. Tum. Tum.

Etxeetako gortina artetik begira dituzte haurrak,  
zuhaitzen adarretatik beleak.

Tum. Tum. Tum.

Larrutu diete azala,  
arradatu hankartea.  
Errimelezko erreka beltzak  
masailetan,  
giza hortzen markak titiburuetan.



Tum. Tum. Tum.

Emakumeak dira,  
emakumeak prozesioan.

Tum. Tum. Tum.

Hezurra eta haragia,  
haragia eta hezurra,  
*to be a woman is to perform*  
*to be a woman is to perform*  
*to be a woman is to perform*  
idatzi dute  
ezpainetako gorriz.

Tum. Tum. Tum.

Leotardo apurtuak  
gorputz apolitikoetan.  
Ezin dute desiratu,  
ez dituzte desio.  
Neska klase hau:  
leotardo apurtuak  
gorputz apokaliptikoetan.

Tum. Tum. Tum.



Ahaztu dute amorrua,  
ahaztu haserrea,  
eta orain mina besterik  
ez dute oroitzen.

Tum. Tum. Tum.

Prozesioan doaz kale estuetatik.

Tum. Tum. Tum.

Askatasuna saltzen da gaur  
erdi-prezioan.

*Maddi Agirre Epelde*



## BEHE CELEBRITY



Autografo bat.

Selfie bat aireportuan.

Paparazziengandik ihesi kotxean.

Ez flipatu.

Ikusiko dituzun flash bakarrak gaztetxean goizeko lauretan nahi gabe irtendakoak izango dira.

Hobeto.

Biserak ez zaizkizu ondo geratzen.

Oraingoz.

Zama ez da famarena.

- Ikusi zaitut Berrian, ikusi dut web-orria.
- Bai?

Zer esan behar da kasu hauetan? Korrika ihes? Non ezkuta naiteke?

Imajinatu Gabriel Aresti idazten.

Orain gauza bera, baina prehistoriatik kanpo.

Apur bat prekarioago. Mahai gabe.

Ohean. Edredoi artean. (Pijama eta guzti).

Ordenagailua milagro.

Bideodeietarako kamara eskasarekin.

KobaZULO bat *en toda regla*.

Hortik.

Berriako portadara.

UAU.

Autograforik nahi? Titietan? Celebrityak gara?

- Oraindik ez dut dena irakurri baina asko gustatu zait.
- Eskerrik asko

*Irati Larrañaga Etxebarria*



## MOTXILADUN HAUR

Sorbaldan batean zenbaterainoko karga suposa dezake motxila batek. Galdera ez da erretorikoa. Zalantza handia dut karga kilogramo, kilonewton ala kilometrotan neurtzen al den, urteetan ere neurtzen duenik bada nonbait. Etiketak ere badakar bere karga, motxiladun haur izatea ez da kontu makala eta nik sarri ihes egin diot ditzosozko hitzari. Izen sintagma, motxiladun haurra. Nor? Haurra, subjektua. Nolakoa? Besteak beste, motxiladuna, izenondoa eta inoiz izenordaina ere jazo izan zait, nire onespenik gabe.

Denbora da, antza, distantziari kontrajar dakiokkeen bakarra, karga arintzeko gai den magnitudea. Ezin fisikari batek ulertu. Nostalgia eta denbora, ordea, zuzenki proportzionalak dira. "Complejo Leo" edo dena delakoan patata tortila ogitartekoa irentsi eta txiza egitea, oroitzapen nahiko mingotsa bada ere, gozo sentiarazten ninduten. Andaluziako negu epelak nolabaiteko nostalgiaz oroitzen ditut klasea aterkin, bufanda, termika, sudadera eta guzti joaten naizenetan. Haur baten motxilak iragazkia ere badu sarreran, eta zuloak nahikoa txikiak dira gauza asko kanpoan gera daitezen.





Sekula ez dut hitz egiten nire *Altus* metaforikoaz, beti soinean daramadan arren. Armairu horretatik ateratzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Nola, nori eta noiz esan. Zergatik ezagutzen dudan hainbeste Jerez de la Frontera? Zera... Plaust, aho bete hortz, isiltasuna. Sorbaldekin keinua egin eta "Xaukena xauk" inozoa bota. Mis traumas mis chistes, edo. Eta motxila sorbaldan berriro igota bideari ekin. Metafora egokia da, ezin inori kontrakorik esan.

*Harri Diaz de Heredia Matanzas*





Izen-deiturak:

NANa:

Data:

## **KONTZIENTZIARI AZTERKETA**

Azterketa honek notaren %100 balio du, beraz, ez da bestelako probekin batez bestekorik egingo. Erantzun oker bakoitza 0.5 punturekin penalizatuko da.


Gainditu ezean, errepikatu egin behar izango da.

### **A. Egindakoak (2 PUNTU):**

Aukeratu erantzun egokiena (0.2 puntu bakoitzak). Aski da aukera zuzena borobiltzea. Hirugarren aukera soilik 3 aldiz hautatu daiteke.

- 2024ko azaroak 4ean Santutxuko Lidl supermerkatuan hummus pote bat, ezpainetako delineadore marroia eta oliba olio birjin *spraya* lapurtu zenituen. Damutzen zara?
  - a. Bai
  - b. Ez
  - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen.



- 
- Gustuko zenuen pertsonarekin zure bizitzako gaurik sutsuena igaro ondoren, *ghosting* egin zenion, konpromezu bat hartzeak beldur ematen zizulako. Ondo jokatu zenuela uste duzu?
    - a. Bai
    - b. Ez
    - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen
  - Zure klaseko *fifea* faxista deitu zenuen “moroak kanpora” esan zuelako. Berdin pentsatzen jarraitzen duzu?
    - a. Bai
    - b. Ez
    - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen.
  - 14 urte zenituenean gurasoei maite ez zenituela esan zenien. Benetan ari zinen?
    - a. Bai
    - b. Ez
    - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen.
  - Gaztetxeko kide batek argia eta ura nola pintxatu ikastea eskaini dizu. Zer erantzun diozu?
    - a. Bai
    - b. Ez
    - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen.



- Karrera amaitzear zaude eta irakasgai bakarra geratzen zaizu gainditzeko. Irakasle horrekin behin baino gehiagotan eduki dituzu liskarrak eta badakizu ez duzula inoiz gaindituko. Diruz edo haragiz ordaintzea planteatu duzu. Gainditu duzu?
  - a. Bai
  - b. Ez
  - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen.
- Polizia batek kalean norbait inkrepatu du eta zuk ez duzu ezer esan, aurrera jarraitu duzu. Lasai geratu zara?
  - a. Bai
  - b. Ez
  - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen
- Literatur-lehiaketa batean parte hartu duzu ChatGPTk idatzi dizun “Genozidio baten zientzia” poemarekin; irabazi egin duzu. Idazle txarra sentitzen zara?
  - a. Bai
  - b. Ez
  - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen
- Tabernan lanean zaudenean beti duzu kamara bat zuri begira, zu kontrolatzeko, eta behin baino gehiagotan pentsatu duzu hura kolpez apurtzea. Lortu duzu horretarako mailua?
  - a. Bai
  - b. Ez

- c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen
- Nahigabe zela esan zenuenean nahita izan zen?
  - a. Bai
  - b. Ez
  - c. Nahiago dut ez erantzun/Ez naiz gogoratzen.

**B. Egitekoak (3 PUNTU):**

Erantzun, zeure hitzak erabiliz, galdera labur hauei (1 puntu bakoitzak):

- Demagun Europan gerrara deitzen dituztela 18 urtetik gorako gazte guztiak. Egoera horren aurrean men egin edo intsumiso agertuko zinateke?
- Jo dezagun bihar zure auzoan LaCaixak bloke oso bat etxegabetuko duela. Jendea behar da segurtasun-hesi baten parte izateko, ziurrenik iraindua, jipoitua zein atxilotua izango dena. Proposamena onartuko zenuke?
- Etorkizunera begiratuta, egon behar eta egin behar duzuna egiten zaudela pentsatuko zenuke?



### C. Eginkizuna (5 PUNTU):

1etik 10era zenbateraino sakrifikatuko zenuke zure borondatea besteen askatasunaren truke.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|

Egin gutxienez 200 hitzeko hausnarketa bat ikasitako hiru argumentu mota ezberdin erabiliz.

*Irati Fdz. de Okariz eta Irati Oskoz*





behe.banda@gmail.com  
www.behebanda.eus  
X: @BeheBanda  
Instagram: @behebanda